

## Videoteca de Baketik

Baketik ha creado una videoteca de películas y documentales cuyo contenido tiene relación con la lucha por vivir y convivir éticamente. Su objetivo es exclusivamente educativo y no comercial. Baketik presta gratuitamente estas películas a quien lo solicite: centros educativos, grupos de tiempo libre, parroquias, ONGs, asociaciones de todo tipo, familias, cuadrillas de amigos/as... Cada película va acompañada de una breve guía didáctica como esta. Su finalidad es facilitar el análisis y la reflexión sobre su contenido. En cada una de estas guías un/a colaborador/a de Baketik que ha visto la película ha elaborado dos de sus apartados: «temática» y las «preguntas antes y después de su visionado». Es la sugerencia que nos hace esta persona para ver esta película. Si quieres tú también puedes colaborar enviándonos tus opiniones sobre películas que te hayan gustado. (Más información en [www.baketik.org](http://www.baketik.org))

# Cobardes

## Temática

### Acoso escolar, Miedo, Opciones

**Acoso escolar.** Esta película aborda la temática del acoso escolar, cómo empieza y qué consecuencias puede tener.

**Miedo.** Se muestra como el miedo condiciona a las personas; el miedo a ser diferente, el miedo a defraudar, el miedo a perder el estatus, el miedo a perder la familia, etc.

**Opciones.** La película muestra las opciones que toma cada personaje para enfrentar su realidad y cómo estas opciones están condicionadas por el miedo.

## Sugerencias para ver y escuchar la película

Una película se puede ver y escuchar de muchas maneras. Ofrecemos unos puntos de referencia. Concretamente, sugerimos ver y escuchar la película...

**...hacia adentro.** Reflexionar sobre lo que la película nos sugiere en primera persona y sobre las preguntas que nos plantea en nuestra propia vida. No pretendamos buscar respuestas definitivas, atendamos a las resonancias que nos deja.

**...hacia fuera.** Promover un coloquio sobre la película en familia o en grupo. No se trata de llegar a conclusiones. Compartimos lo que hemos sentido y percibido e intentamos escuchar y entender la percepción diferente de los otros.

**...no solo con la cabeza, también con el corazón.** Se trata de dejar por un momento a un lado los prejuicios ideológicos o ideas preconcebidas para que, al hilo de lo que nos cuenta la película, puedan hablar los sentimientos.

**...y después de algún tiempo repensar.** Estar atentos al poso que la película deja después de unos días. Ese «poso» es una impresión en la que se funden nuestra reflexión sobre lo que hemos visto y la vida propia que la historia cobra en nosotros/as.

## Algunas preguntas...

### ...antes de la película

- Sobre el acoso escolar: ¿sabes qué es el acoso escolar? en el ámbito escolar, aparte de golpear a una persona, ¿existen diferentes formas de abusar de alguien? ¿Cuáles? ¿Lo has visto en tu colegio?, ¿hay que hablar del tema?, ¿se tiene que contar?
- Sobre el miedo: ¿crees que todo el mundo tiene miedo? ¿a qué tenemos miedo? ¿Cómo repercute el miedo en nuestras vidas? ¿Qué papel juega en la toma de decisiones? ¿Es fácil escuchar a la conciencia y obrar en consecuencia?
- Sobre las opciones: ¿ante un problema hay una sola salida o suele haber diferentes opciones? ¿Ante el acoso escolar las hay?

### ...después de la película

- En la película, Gabi es acosado de diferentes formas, ¿qué episodios de acoso se ven en la película?
- ¿A qué tienen miedo Gabi, Guille y los padres de cada uno? ¿Y Silverio? ¿Podrían actuar de otra forma ante sus problemas?
- ¿Crees que Gabi ha solucionado su problema? ¿Crees que ha sido una buena solución la encontrada? ¿Por qué crees que ha dejado Carla de lado a Gabi? ¿Se te ocurre un final diferente para la película?

Con la colaboración de Kristina Soares.

zeurekin eta besteekin bizitzeko zinema

# Cobardes

una película de los directores de "tapas"  
jose corbacho y juan cruz



**cobardes**  
y tú, ¿de qué tienes miedo?

FESTIVAL DE MÁLAGA CINE ESPAÑOL  
PREMIO DE LA CRÍTICA  
MENCION ESPECIAL DEL JURADO



## Ficha técnica

TÍTULO ORIGINAL: Cobardes

AÑO: 2008.

DURACIÓN: 89 min.

PAÍS: España.

DIRECCIÓN: José Corbacho, Juan Cruz.

REPARTO: Eduardo Garé, Eduardo

Espinilla, Elvira Minguez, Antonio de la Torre, Lluís Homar, Paz Padilla, Frank Crudele, Blanca Apailanez, Adriana Gaya, Javier Bórdalo, Gorka Zubeldia, Albert Baulies, Carla Tous, Francisco Vidal, Jordi Boixaderas, Blanca Suárez, José Angel Egido, Maria Molins.

PRODUCCIÓN: Filmax/Ensueño Films.

## Sinopsis

Historia de dos chavales de secundaria, uno la víctima y otro el verdugo. Guille es, en apariencia, un chico como muchos: buenas notas, buen deportista, y con una familia que le respalda. Descubre que actuar de "chulito" en clase le granjea el respeto de los demás, por lo que, sin dudarlo, elige a una víctima y, con cualquier pretexto se pasa el día acosándolo con sus amigos. Gabriel es la víctima elegida. El único motivo: tener el pelo rojo.

baketik

943-251005

[www.baketik.org](http://www.baketik.org)

baketik

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO  
LEHENDAKARITZA PRESIDENCIA  
Baketik eta Bizikidetzarako Sekretaria General para la Paz y la Convivencia  
Itas-erakunde Nagusia Dirección de Víctimas y Derechos Humanos  
Baketik eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

## Baketik-en bideoteka

Baketik-ek geurekin eta besteekin etikoki bizitzearekin zerikusia duten filmen eta dokumentalen bideoteka bat sortu du. Helburu hezigarria dauka soilik, ez komertziala. Baketik-ek doan uzten dizkie pelikulak eskatzen dituztenei: ikastetxeak, aisialdi taldeak, parrokiak, GKEak, mota guztietako elkarteak, familiak, lagun taldeak... Pelikula bakoitzak hau bezalako gida didaktiko bat darama. Edukiari buruzko azterketa eta gogoeta erraztea du xede. Gida bakoitzean pelikula ikusi duen Baketik-eko kolaboratzaile batek bi atal egin ditu: «gaia» eta «galderak pelikula ikusi aurretik eta ondoren». Hau da pertsona honek pelikula ikusteko egiten digun iradokizuna. Nahi izanez gero, zeuk ere parte har dezakezu gustatu zaizkizun zenbait pelikulen iritziak bidalita. (Informazio gehiago [www.baketik.org](http://www.baketik.org) webgunean)

## Gaiak

### Eskola jazarpena, Beldurra, Aukerak

Eskola jazarpena. Film honek eskola jazarpenaren gaia jorratzen du, nola sortzen den eta zer ondorio izan ditzakeen.

Beldurra. Beldurrak pertsonak nola baldintzatzen dituen ikusten da; desberdin izateko beldurra, huts egiteko beldurra, estatusa galtzeko beldurra, familia galtzeko beldurra, etab.

Aukerak. Pertsonaia bakoitzak bere errealitateari aurre egiteko hartzen dituen bideak erakusten zaizkigu, eta aukera horietan beldurrak duen eragina ikusten da.

### Filma ikusteko eta entzuteko iradokizunak

Pelikula bat modu askotara ikus eta entzun daiteke. Erreferentzi puntu batzuk eskaintzen ditugu. Zehazki pelikula modu honetara ikustea eta entzutea iradokitzen dizugu:

...barrura begira. Gutako bakoitzari esanguratsu egiten zaigun horri buruz eta gure bizitzan bertan sorrarazten dizkigun galderei buruz hausnartu. Helburua ez da betirako erantzunak aurkitzea, uzten dizkigun arastoei erreparatzea baizik.

...kanpora begira. Taldean edota familian elkarriketa sustatu. Kontua ez da ondorioetara iristea. Hauteman eta sentitu duguna konpartitzea, eta besteen hautemate ezberdina entzuten eta ulertzen saiatzea da.

...ez bakarrik arrazoiarekin, baita bihotzarekin ere. Une batez aurreiritzi ideologikoak eta edo aurrez ditugun ideiak albo batera utzi, pelikulak kontatzen digun horren harira, sentimenduek hitz egin dezaten.

...eta denbora baten buruan, berriz ere pentsatu. Adi erreparatu egun batzuen ostean pelikulak utzitako arastoari. Arrasto hori ikusi dugunari buruzko hausnarketak eta istorioak gudan hartu duen biziak sortutako inpresioa da.

# Cobardes

## Fitxa teknikoa

JATORRIZKO IZENBURUA: Cobardes

URTEA: 2008.

IRAUPENA: 89 min.

HERRIALDEA: España.

ZUZENDARIA: José Corbacho, Juan Cruz.

AKTORE-ZERRENDA: Eduardo Garé,

Eduardo Espinilla, Elvira Minguez, Antonio de la Torre, Lluís Homar, Paz Padilla, Frank Crudele, Blanca Apailanez, Adriana Gaya, Javier Bórdalo, Gorka Zubeldia, Albert Baulies, Carla Tous, Francisco Vidal, Jordi Boixaderas, Blanca Suárez, José Angel Egido, María Molins.

EKOIZPENA: Filmax/Ensueño Films.

## Sinopsia

Bigarren hezkuntzako bi mutikoren istorioa, bat erasotua, bestea erasotzailea. Guille, itxura batean, beste asko bezalako da: nota onak, kirolean abila, eta babesten duen familia duena. Gelan "harroxo" jokatuta besteek errespetatu egiten dutela nabaritzen du, horregatik, zalantza izpirik gabe, biktima bat aukeratu eta edozein aitzakia baliatuz, bere lagunekin batera hura jazartzen pasatzen du eguna. Gabriel hautautako biktima da. Arrazoia, bakarra: ile gorria edukitzea.

## Zenbait galdera...

...pelikula ikusi aurretik

·Eskola jazarpenari buruz: badakizu zer den eskola jazarpena? Eskolan, norbait jotzeaz gain, badira norbaiti eraso egiteko beste modu batzuk? Zeintzuk? Ikusi al dituzu horiek zure eskolan? Gaiaz hitz egin behar al da? Gertatzen dena kontatu behar al da?

·Beldurrari buruz: uste duzu mundu guztiak dituela beldurrak? Zeri gara beldur? Nola eragiten du beldurrak gure bizitzan? Nola baldintzatzen ditu gure erabakiak? Erraza al da kontzientziari entzun eta haren arabera jokatzeko?

·Aukerei buruz: arazo batek irteera bakarra izaten du ala aukera gehiago daude? Eskola jazarpenaren aurrean aukera bat baino gehiago daude?

...pelikula ikusi ondoren

·Filmean modu desberdinetan erositzen dute Gabi, zein jazarpen gertaera ikus daitezke?

·Zeri diote beldurra Gabik, Guillek eta bakoitzaren gurasoek? Eta Silveriok? Arazoen aurrean jokatu al dezakete beste modu batean?

·Uste duzu Gabik bere arazoa konpondu duela? Hautatutako irtenbidea egokia da? Zergatik uste duzu Carlak bazter utzi duela Gabi? Bururatzen zaizu filmarentzako beste amaiera bat?

Kristina Soaresen laguntzarekin.

# Cobardes

una película de los directores de "tapas"  
jose corbacho y juan cruz



**cobardes**  
y tú, ¿de qué tienes miedo?

FESTIVAL DE MÁLAGA CINE ESPAÑOL  
PREMIO DE LA CRÍTICA  
MENCION ESPECIAL DEL JURADO

eduardo garé / eduardo espinilla / elvira minguez / antonio de la torre /  
lluis homar / paz padilla / frank crudele / blanca apailanez /  
adriana gaya / javier bordalo / gorka zubeldia / albert baulies /  
carla tous / francisco vidal / jordi boixaderas / blanca suarez / jose angel egido / maria molins

baketik

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO  
LEHENDAKARITZA PRESIDENCIA  
Baketik eta Elakidetzarako Sekretaria General para la Paz  
Itasuntza Nagusia y la Convivencia  
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

baketik

943-251005

[www.baketik.org](http://www.baketik.org)